# Néstor Basterretxea + San Telmo Museoa

## Bilduma baten loturak / Conexiones de una colección

Erakusketa
**SAN TELMO MUSEOA**
Exposición

**2024.10.4 / 2025.1.26**

Nestor Basterretxearen jaiotzaren ehungarren urtemuga (1924-2014) betetzen den honetan, San Telmo Museoak bere erakusketa iraunkorreko hainbat piezaren eta euskal artistaren obra esanguratsuen hautaketa baten arteko elkarrizketazko ibilbide bat eskaintzen du. Eskultoreak askotariko teknika eta diziplinatako artelanetan gauzatu zuen bere hurbileneko inguruarekiko zeukan interesa, eta arreta berezia jarri zuen, ezagutza- eta inspirazio-iturri gisa, euskal kulturaren adierazpen tradizionaletan, ohituretan eta sinesmenetan. Horregatik guztiagatik, objektuen arteko irakurketa interpretatiboa eta elkarlotua proposatzen da; horrek ahalbidetuko du euskal artistaren ezagutza aberastea eta museoak biltzen duen ondarea balioestea.

Con motivo de la celebración del centenario del nacimiento de Néstor Basterretxea (1924-2014), San Telmo Museoa ofrece un recorrido dialogado entre las diferentes piezas de su colección permanente y una selección de obras significativas del artista vasco. La atención del escultor por su entorno más cercano y las manifestaciones tradicionales de la cultura vasca, sus costumbres y creencias como fuente de conocimiento e inspiración se tradujo en múltiples obras de arte realizadas en variadas técnicas y disciplinas. Por todo ello, se propone una lectura interpretativa e interrelacionada entre objetos que permita enriquecer el conocimiento del artista vasco, y poner en valor el patrimonio que conserva el museo.

### 1 Argizaiola, 1973

Bere arbasoen historiarekiko zeukan interesak hileta-errituek eta euskal tradizioek gordetzen dituzten misterioak argitzera eraman zuen Nestor Basterretxea, herri-objektu liturgikoen birsorkuntzaren bidez, argizaioletan oinarrituz adibidez. Pieza honetan, egilearen interes abangoardista ikus dezakegu, jatorrizko funtzionaltasuna eta erlijio-erabilera ahaztu, eta izaera guztiz eskultoriko eta estetikoa duen zentzu bolumetrikoko obra bat sortuz.

El interés de Néstor Basterretxea por la historia de sus antepasados le lleva a desentrañar los misterios que encierran los ritos funerarios y las tradiciones vascas a través de la reelaboración de objetos litúrgicos populares como las argizaiolas. En esta pieza, se observa el interés vanguardista del autor, que olvida la funcionalidad original y el uso religioso, para crear una obra con un sentido volumétrico de carácter totalmente escultórico y estético.

### 2 Laugarren hilarria, 1975

70eko hamarkadako Disko Formako Hilarrien Serieko pieza honek agerian uzten du Basterretxearen nahia, hau da, hala gaian nahiz bere espiritualtasunean, nola bere garaiko lengoaietan birsortzen dituen formetan, bere erritu eta hileta-ohituratzat hartzen dituen zeinu moderno eta abstraktuekin berrinterpretatzeko nahia.

Esta pieza perteneciente a la Serie de Estelas Discoideas de los años 70 pone de manifiesto el deseo de Basterretxea de reinterpretar con nuevos signos modernos y abstractos unos ritos y unas prácticas funerarias que reconoce y establece como propios, tanto en el tema y su espiritualidad, como en las formas que recrea en lenguajes de su tiempo.

### 3 Amalur, 1968 (min. 51.08 – 1.03.00)

Historiaurretik hirurogeiko hamarkadara bitarteko Euskal Herriko historiari buruz Nestor Basterretxeak Fernando Larruquertekin batera egindako dokumental izaerako lehen film luzeko fotogramak. Euskal Herriaren emoziozko erretratu bat eskaintzen du irudi eta soinuen bidez. Euskal Herriko paisaiak, sinesmenak, ohiturak eta bizimoduak azaltzen ditu, jasandako errepresioaren aurrean kultura propio baten baieztapenezko interes erreibindikatzaile batekin.

Fotogramas del primer largometraje de carácter documental realizado por Néstor Basterretxea junto con Fernando Larruquert sobre la historia del País Vasco desde la prehistoria hasta los años sesenta. Proporciona un retrato emocionado del pueblo vasco en base a imágenes y sonidos que recrean sus paisajes, creencias, tradiciones y formas de vida, con un interés reivindicativo de afirmación de una cultura propia frente a la represión sufrida.

### 4 Akelarre, 1972

Euskal Serie Kosmogonikoaren lehen eskultura. Serie horren bidez euskal Haritz-zurez egina, sorgin-bilera bat adierazten du indar dinamiko handia duten forma organikodun adierazkorrekin. Gaia mitologian oinarrituta imajinatutako bizipenekin lotzen da, baina baita sorginkeriaz akusatutako emakumeen aurkako epaiketekin eta Inkisizioaren errealitatearekin ere.

Primera de las esculturas de la Serie Cosmogónica Vasca con la que el artista quería dotar de apariencia tangible a los mitos y creencias de los ancestros vascos. Realizada en madera de roble, recrea una reunión de brujas con una serie de formas orgánicas y expresivas de gran fuerza dinámica. El tema enlaza con las vivencias imaginadas desde la mitología, pero también desde la propia realidad de la Inquisición y sus juicios contra mujeres acusadas de brujería.

### 5 Hiri zuria, 1957. Hiri-paisaia, 1957

1957ko bi lan hauek etapa espresionista eta figuratiboago baten ondoren artistak izan zuen izaera ikertzailea eta bultzada analitiko eta modernoa erakusten dute. Material berrien inkorporazio abangoardistarekin, Basterretxeak paisaia utopiko eta abstraktu berriak sortu zituen, hirietako mundu aldakorra irudikatuz. Horri esker aurrera egin zuen espazioaren problematikan eta azalera piktorikoan sortutako tentsioetan, ondoren eskulturara igaro ahal izateko.

Estas dos obras de 1957 demuestran el carácter investigador y el impulso analítico y moderno del artista tras una etapa más expresionista y figurativa. Con la incorporación vanguardista de nuevos materiales, Basterretxea construye nuevos paisajes utópicos y abstractos que remiten al mundo cambiante de las ciudades y le permiten avanzar en la problemática del espacio y las tensiones surgidas en la superficie pictórica y su posterior paso a la escultura.

### 6 Mural baterako proiektua Forondako aireportuan, Vitoria-Gasteiz,1980
### Proyecto para un mural en el aeropuerto de Foronda, Vitoria-Gasteiz, 1980

Forondako aireporturako eskultura publiko baten maketa. Bertan ikus daiteke, garapenaren eta modernitatearen kontrapuntu gisa, egileak artistak lanabesak esanahiz betetako elementuak izango balira bezala zizelkatzen eta kokatzen ditu, iraun behar duen jakintza bat biltzen dutenak, gerta daitekeen galera posible baten aurrean goraipatzeko ahaleginean.

Maqueta de una escultura pública para el aeropuerto de Foronda, en la que se aprecia la importancia que otorga el autor a la artesanía y la tradición como contrapunto al desarrollo y la modernidad. A modo de altar o retablo, el artista talla y coloca los diferentes utensilios como si fueran elementos cargados de significado que concentran un saber que debe perdurar, en un intento de ensalzarlos frente a su posible pérdida.

### 7 Eguzki Lore Laugarrena, 1974

Haritz-zurez egindako taillaren bitartez egindako euskal tradizio eta kondairen interpretazio berri bat. Forma biribila berreskuratzen du, forma horrek daukan zentzu babesleagatik, eta azalerari tratamendu testurala ematen dio, balio plastiko handia duten erliebeekin. Horiek, gainera, euskal tradizioko objektu funtzional diren kutxen zurezko dekorazioak gogora ekartzen dizkigute.

Una nueva interpretación de las tradiciones y leyendas vascas a través de la talla en madera de roble. Recupera la forma circular por su sentido protector e incluye un tratamiento textural de la superficie con relieves de gran valor plástico, que recuerdan a las decoraciones talladas en madera de varios objetos funcionales de la tradición vasca, como son las kutxas.

### 8 Heriotza zerutik etorri jakun, 2011

Gerra Zibilean hiribilduak jasan zuen bonbardaketaren 75. urteurrena gogoratzeko asmoz Basterretxeak Otxandioko Andikona plazan 2011n instalatu zuen eskultura publikoaren maketa.  Hala erabilitako materialak nola forma geometriko abstraktuek eta zerurantz zuzendutako lerro diagonalek zera nabarmentzen dute espresiboki, gatazka belikoan gizarte zibilak jasandako indarkeria eta sentitutako sumindura suntsipenaren aurrean.

Maqueta de la escultura pública que Basterretxea instaló en 2011 en la plaza Andikona de Otxandio para recordar el 75 aniversario del bombardeo que sufrió la villa en plena Guerra Civil. Tanto el material utilizado como las formas geométricas abstractas y las líneas diagonales dirigidas hacia el cielo expresan la violencia sufrida por la sociedad civil en el conflicto bélico y su indignación ante la destrucción.

### 9 Biok errotulua, 1966-1968. Rótulo Biok,1966-1968

Biok altzari-enpresarentzat diseinatutako logotipoa daukan publizitate-errotulua. Artistak beste bi bazkiderekin sortu zuen Gipuzkoan enpresa hori eta hirurogeiko hamarkadatik aurrera altzarien diseinuan aritu zen bertan nagusiki. Xumetasunean eta forma modernoetan oinarritutako altzariak sortzeko interesa bat zetorren funtzionalismoa diseinuaren mundura eramateko nahiarekin eta euskal etxeetan hedatzeko gogoarekin.

Rótulo publicitario con el logotipo diseñado para la empresa de muebles Biok, fundada por el artista junto a otros dos socios en Gipuzkoa, donde realizó principalmente labores de diseño de muebles desde los años sesenta. El interés por crear muebles donde primara la sencillez y las formas modernas conjugaban con un deseo por llevar el funcionalismo al mundo del diseño y popularizarlo en los hogares vascos.

### 10 Operación H, 1963

Film labur esperimentala, Basterretxearen eremu zinematografikorako lehen saiakera izan zena, bere enpresak sustatzeko Huarte familiak eskatuta. Pieza industrialen plano eta perspektiba desberdinak erabiltzeko modu abangoardista eta Luis de Pabloren musikaren ezohiko erritmoa uztartzen ditu artistak, 60ko hamarkadako industrializazioaren interpretazio moderno bat emanez.

Cortometraje experimental que supuso la primera incursión en el ámbito cinematográfico de Basterretxea a solicitud de la familia Huarte para promocionar sus empresas. El artista hace tomas de las piezas industriales desde diferentes planos y perspectivas que, acopladas al ritmo insólito de la música de Luis de Pablo, da como resultado una interpretación moderna y vanguardista de la industrialización de los años 60.

**11 Kartelak:** Carteles: **Ondarrabian, 1972; Intxixu, 1972; Alderdi eguna, 1975; Bai Euskarari, 1978; Gernikako Estatutoa Bai, 1979; Cincuentenario Fiestas Euskaras, Fuenterrabia, 1975**

Hainbat kanpaina eta erakusketetarako Basterretxeak diseinatutako kartel hautaketa. Argi erakusten dute Trantsizioan bizi izan ziren arazo sozio-kultural eta politikoekin artistak izan zuen inplikazioa eta konpromisoa. Tratamendu desberdinekin, baina beti bere lengoaia kreatiboa biltzen eta laburtzen duen indar bisual handi batekin, kasu batzuetan oso hedapen nabarmena lortu zuten, garai bateko sinbolo bihurtzera iritsi arte.

Selección de varios carteles diseñados por Basterretxea para diferentes campañas y exposiciones que demuestran la implicación y el compromiso del artista con los problemas socio-culturales y políticos que se vivieron durante la Transición. Con diferentes tratamientos, pero siempre con una gran fuerza visual que concentraba y resumía su lenguaje creativo, alcanzaron en algunos casos una difusión muy notable llegando a convertirse en símbolos de una época.

**12 Izaro proiektuaren faksimilea, 1982. Izaroren maketa, 1982-83**
Facsímil del proyecto Izaro, 1982. Maqueta de Izaro, 1982-83

Eusko Legebiltzarrean kokatzeko deitu zen sinbolo-lehiaketarako Basterretxeak landutako diseinuaren proiektua eta maketa. Haritz-zurezko forma abstraktu geometriko eta irmoak dira, Gernikako arbola gogorarazten dutenak eta, 1983an Gasteizko egoitzan jarri zirenetik, ikur bihurtu direnak, laurogeiko hamarkadako hasieran sortutako euskal kulturaren eta politikaren pixkanakako instituzionalizazioaren erakusgarri.

Proyecto y maqueta del diseño que Basterretxea elaboró para el concurso de símbolos para presidir el Parlamento Vasco. Formas abstractas geométricas y rotundas en madera de roble que aluden al árbol de Gernika y que, desde su instalación en la sede vitoriana en 1983, se han convertido en un emblema y en el reflejo de la paulatina institucionalización de la cultura y la política vasca producida a principios de los años ochenta.

## **BEHE solairua.** Planta BAJA




## **LEHENENGO solairua.** PRIMERA planta




**Antolatzailea.** Organiza:

STM San Telmo Museoa · Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián · donostia kultura · 100 basterretxea

**Erakunde babesleak.** Instituciones socias:

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Kultura eta Hizkuntza Politika Saila · Departamento de Cultura y Política Lingüística · GIPUZKOA Kultura